

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 768/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, zeinaren bidez kudeaketa batzorde bat eratzen baita bete ditzan martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, Lozako Kontzejuko Administrazio Batzarrari egotzitako egitekoak

Arabako Hauteskunde Batzordeko lehendakariak jakinarazi du, Arabako kontzejuetako errejidore eta kideen hauteskundeen 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauaren 19. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, onartu egin dutela Lozako Kontzejuko Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakari eta kideen karguek uko egin izanari kargu horiei, eta ez dagoela bizilagun gehiagorik botorik jaso duenik azkeneko hauteskundeetan, karguei uko egin dietenek hutsik utzitako tokiak betetzeko.

Martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, bere 50. artikuluan hau xedatzen du: "Baldin eta Administrazio-Batzorderako hauteskundeak egin eta gero, aginte eta administrazio sailak bete gabe geratzen badira, Foru Aldundiak kudeaketa batzorde bat izendatu, eta honek hauteskundeak egiteko deia egin ahal izango du urtebete igaro ondoren"

Hortaz, kudeaketa batzorde bat izendatu behar da, Lozako Kontzejuko Administrazio Batzarraren berezko eginkizunak bete ditzan.

Arabako kontzejuetako errejidore eta kideen hauteskundeen 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauak oro har xedatzen duenez bere 3. artikuluan, bizilagun guztiak dira hautagai kontzejuetako karguak betetzeko, baldin eta hautesle izateko ezaugarria izanik ez badaude hautaezintasunerako prozesuren batean sartuta.

Lehen esandakoaren arabera, kudeaketa batzordearen kideak izendatzeko, lehenengo eta behin herriko bizilagunengana jo behar da, eta horretarako, apirilaren 20ko 257/2016 Foru Aginduaren bidez, Lozako Kontzejuari eskatu zitzaion proposatu zitzala Arabako Foru Aldundiak izendatzeko interesa zeukaten pertsonak, hala balegokio, kide kudeatzaile gisa, baina ez zuen inolako proposamenik egin.

Ondorioz, nola kontzeju hori administrazio organo batez hornitu beharra dagoen eta nola ez dagoen bizilagunik kargu horiek borondatez betetzeko, eta hori aparteko inguruabarra da, kudeaketa batzorde bat eratu behar da Lozako Kontzejuko Administrazio Batzarrerako, baita hango kide izendatu ere Urizaharreko Udalak, Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrillak eta Arabako Foru Aldundiak proposaturiko pertsonak.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Kudeaketa batzorde bat eratzea bete ditzan martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, Lozako Kontzejuko Administrazio Batzarrari egotzitako egitekoak.

Bigarrena. Juan José Betolatza Pinedo izendatzea Lozako Kontzejuko kudeaketa batzordearen lehendakari, zeinak martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko

kontzejuenak, administrazio batzarretako errejidore-lehendakariei egozten dizkien eginkizunak beteko baititu.

Hirugarrena. Mikel Herrador Iriarte eta Iñaki Guillerna Saenz izendatzea Lozako Kontzejuko kudeaketa batzordearen kide, zeinek martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, administrazio batzarretako kideei egozten dizkien eginkizunak beteko baitituzte.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta berariaz jakinaraziko zaie Lozako Kontzejuari, Urizaharreko Udalari eta Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrillari.

Bosgarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, EAeko Auzitegi Nagusian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Diputatuen Kontseiluan; hori guztia, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, -azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin loturik- 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren

eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ